## DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

2013ko azaroaren 20ian, Batzar Orokorrak, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Onartzea kale garbiketako zerbitzuko peoi espezialista eta hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuko peoi espezialista plazen deialdia eta oinarriak, oposizio-lehiaketa irekiaren bitartez hornitzeko, txanda kontratuaren modalitatepean.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Eibar, 2013ko abenduaren 10a.—Lehendakaria.

(327) (11583)

### DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN KALE GARBIKETAKO ZERBITZUKO PEOI ESPEZIALISTAKO PLAZA 1 TXANDA KONTRATUAREN MODALITATEPEAN BETETZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETAREN OINARRIAK

*Lehenengoa. Deialdiaren xedea.*

Oinarri hauen xedea honako hau da: Bide-garbiketako zerbitzuko peoi espezialistako plaza 1 txanda-kontratuaren modalitatepean betetzeko deialdia oposizio-lehiaketa askearen sistemaren bidez arautzea.

Plaza hori Mutrikuko udalerriari esleituta dago.

Lanaldia Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak urtean ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak kontuan hartuta.

Txanda-kontratua enplegu-bulegoan langabe gisa inskribatuta dagoen edo enpresarekin iraupen jakin bateko kontratu bat itunduta duen langile batekin itunduko da, erretiro partziala hartuko duen enpresako langilea ordezteko. Azken horrekin ituntzen den lanaldi partzialeko kontratuaren aldi berean egingo da. Kontratuaren iraupena ordeztutako langilea falta izango den aldiaren berdina izango da.

Txanda-kontratua partziala izango da, eta lanaldia %75aren baliokidea izango da. Hortaz, bat dator txanda-kontratuaren bidez ordeztutako langilearekin adosten den lanaldi-murrizketarekin (ordeztutako langileak 2018ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo den Erretiro Partzialeko Plana ezartzeko akordio kolektiboari atxiki zitzaion).

Plaza lortzen ez dutenen, baina oposizio-fasea gainditzen duten izangaien zerrenda antzeko lanpostuetan langile ez-iraunkorren premiei erantzuteko erabili ahal izango da.

Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriak honako hauek dira:

— *Kod.:* 0233.

*Lanpostua:* Kale-garbiketako langile espezialista (Mutriku).

*Taldea:* E.

*HE:* 1.

*Derrigortasun data:*

*Bigarrena. Plazaren funtzioak.*

Funtzioen Eskuliburuko zereginen deskribapenean agertzen direnak eta lanpostu horri dagokionez Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak esleitzen dizkionak izango dira.

## MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

*Anuncio*

La Junta General, en sesión celebrada el 20 de noviembre de 2013, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

1. Aprobar la convocatoria y bases de una plaza de peón especialista del servicio de limpieza viaria y una plaza de peón especialista de recogida de residuos urbanos, para ser provistas por el sistema de concurso-oposición libre, bajo la modalidad de contrato de relevo.

Lo que se hace público para su general conocimiento.

Eibar, a 10 de diciembre de 2013.—El Presidente.

(327) (11583)

### BASES DEL CONCURSO-OPOSICIÓN PARA LA PROVISIÓN DE 1 PLAZA DE PEÓN ESPECIALISTA DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA, BAJO LA MODALIDAD DE CONTRATO DE RELEVO, DE LA MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de estas bases, regular la convocatoria por el sistema de concurso-oposición libre, para la dotación y provisión de 1 plaza de Peón Especialista del servicio de limpieza viaria, de carácter laboral, bajo la modalidad de contrato de relevo.

Esta plaza está asignada al municipio de Mutriku.

La jornada de trabajo será la que se establezca anualmente por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

El contrato de relevo se concierta con un trabajador inscrito como desempleado en la oficina de empleo, o que tuviese concertado con la empresa, un contrato de duración determinada, para sustituir al trabajador de la empresa que accede a la jubilación parcial. Se celebrará simultáneamente con el contrato a tiempo parcial que se pacte con este último. La duración del contrato será igual a la del tiempo que falte el trabajador sustituido.

El contrato de relevo se celebrará a tiempo parcial, con una jornada igual al 75%, que se corresponde con la reducción de jornada que se acuerda con el trabajador sustituido mediante contrato de relevo, quien se acogió al acuerdo colectivo para el establecimiento del Plan de Jubilación Parcial, con vigencia hasta el 31 de diciembre de 2018.

La lista de aspirantes que, no habiendo obtenido la plaza superen, la fase de oposición, podrá ser utilizada para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares.

Las características del puesto de trabajo, objeto de provisión, es la siguiente:

— *Cod.:* 0233.

*Puesto:* Operario Especialista L.V. (Mutriku).

*Grupo:* E.

*P.L.:* 1.

*Fecha de perceptividad:*

*Segunda. Funciones de la plaza.*

Las que figuren en cada momento en la descripción de tareas del Manual de Funciones y que en relación a este puesto le sean asignadas por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

*Hirugarrena. Izangaien baldintzak.*

Hautaketa-probetan onartua izateko eta parte hartzeko, betebehar hauek ezinbestekoak izango dira:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea. Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatugabearen ondorengoak ere, hogeita bat (21) urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien mendekoak badira.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean 18 urte beteta izatea, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

c) Eskola-ziurtagiria izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzean ziurtagiri hori lortzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko titulazioen kasuan, tituluaren homologazioari dagokion egiaztagiriaren jabe izan beharko dute interesdunek.

d) Lanbiden inskribatuta egotea, edo erretiro partziala hartuko duen enpresako langilea ordezteko iraupen jakin bateko kontratu bat itunduta izatea.

e) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea; nolanahi ere, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 legea aplikatu ahal izango da. Alderdi hori egiaztatu egin beharko da, puntuaziorik handiena lortzen duen izangaiari azterketa egin ondoren.

f) Diziplinazko espediente baten bidez edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik baztertuta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaikuntza absolutu edo berezirik ez izatea. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

g) Txanda-kontratua lortzeko legezko baldintzak betetzea: Langileen Estatutuaren 12.7 artikulua.

Izangaiek aurrekarian eskatutako betekizunak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzean.

*Laugarrena. Eskabideak.*

Eskabideek eredu ofizial eta normalizatuari jarraituko diote, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Erregistroaren Bulegoan eta webgunean lortu ahal izango dira (eredua oinarri hauei erantsi zaie).

Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabideak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidente jaunari igorriko zaizkio, eta honako betekizun hauek bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek zera adierazi behar dute eskabidean, deialdiaren 3. oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

b) Gainera, honako dokumentazio hau gaineratu beharko da:

— NANaren fotokopia.

*Tercera. Condiciones de los aspirantes.*

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en las pruebas de selección, serán requisitos necesarios:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales, celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores. También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean éstos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad dependientes.

b) Tener cumplidos 18 años de edad a la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa, en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias.

c) Estar en posesión del certificado de escolaridad o haber abonado los derechos para obtenerlo al tiempo de finalización del plazo de presentación de instancias. En el caso de titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Estar inscrito en Lanbide o tener concertado un contrato de duración determinada para sustituir al trabajador de la empresa que accede a la jubilación parcial.

e) Poseer capacidad funcional para el desempeño de las tareas, sin perjuicio de la aplicación de la ley 13/1982, de 7 de abril, de Integración social de minusválidos. Este extremo habrá de acreditarse, en su momento, tras un reconocimiento al que será sometido el aspirante con mayor puntuación.

f) No haber sido separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para el ejercicio de funciones públicas. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

g) Cumplir con los requisitos legales para poder acceder al contrato de relevo: Art.12.7 del Estatuto de los Trabajadores.

Los aspirantes deberán reunir los requisitos exigidos en el antecedente a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

*Cuarta. Instancias.*

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado, que serán facilitadas en la Oficina del Registro de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y en la página web y que se adjunta a las presentes bases.

Las instancias solicitando ser admitido en el concurso-oposición, se dirigirán al Sr. Presidente de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Los aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base 3.ª de la convocatoria, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

b) Además, adjuntará a la instancia la siguiente documentación:

— Fotocopia del D.N.I.

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren edo goragoko mailaren tituluaren fotokopia.

— Euskara-tituluaren fotokopia (HE1).

— Curriculum vitaea.

— Eskabidean alegatutako merituak egiaztatuko dituzten dokumentuak, Lehiaketa Fasean balioesteko.

Behar bezala egiaztatzen ez diren merituak ez dira balioetsiko.

Esperientzia, nolanahi ere, lan egin duten enpresaren edo Administrazioaren ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da, eta kontratuaren iraupena eta betetako funtzioak zehaztuko dira. Eremu pribatuko esperientzia egiaztatzeko, aurrekoaz gain Gizarte Segurantzarako kotizazioaren ziurtagiria beharko da.

Oposizioko ariketak Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi duten jasoarazi beharko dute izangaiek.

c) Eskabideak, behar bezala beteta, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira hogei (20) egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Abenduaren 24 eta 31 egun baliogabeak kontsideratuko dira.

Eskabideak, halaber, posta-bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidenteari igorriko zaizkio gutun-azal ireki batean, aurkezteko epearen barruan ziurtatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioak data eta zigilua jartzeko. Kasu horretan baino ez da ulertuko eskabideak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Erregistrora iritsi direla, posta-bulegoan aurkeztu ziren egunean.

*Bosgarrena. Izangaiak onartzea.*

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidenteak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta Epaimahai Kalifikatzaileko kide titularren eta ordezkoen izendapena onartuko ditu. Horiek guztiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta webgunean argitaratuko dira, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen iragarki-taulan jarriko dira. Nolanahi ere, hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazio edo akatsen zuzenketarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikuluari jarraiki.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik izanez gero, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira horiek, eta behin betiko zerrenda onartuko da. Zerrenda hori, halaber, lehen aipatutako moduan argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan eta bi hilabeteko epean, onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; nolanahi ere, bidezkotzat hartzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da. Aldez aurretik, eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabete bateko epean.

*Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.*

Proben Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrez eta ordezkoez osatuta egongo da, eta horien izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta webgunean argitaratuko da. Hona hemen Epaimahaiaren osaera:

— Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria o superior.

— Fotocopia, del título de Euskera (PL1).

— Curriculum vitae.

— Documentos que acrediten los méritos alegados en la instancia, al objeto de su valoración en la Fase de Concurso.

No serán objeto de valoración, aquellos méritos que no sean suficientemente acreditados.

La experiencia deberá ser acreditada mediante certificaciones de Empresa o de la Administración en la que se hayan prestado servicios, especificándose la duración del contrato y las funciones desempeñadas. La experiencia en el ámbito privado deberá acreditarse, además, mediante certificación de la cotización a la Seguridad Social.

Los aspirantes deberán hacer constar la lengua oficial de la CC.AA. en la que desean realizar los ejercicios de la oposición.

c) Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, dentro del plazo de veinte (20) días hábiles, contados desde el siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Los días 24 y 31 de diciembre se considerarán días inhábiles.

Las solicitudes podrán ser también presentadas en las Oficinas de Correos, de acuerdo a lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico y Procedimiento Administrativo, de 26 de noviembre de 1.992, y se dirigirán al Sr. Presidente de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación. Sólo en este caso, se entenderá que las mismas han tenido entrada en el Registro de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos.

*Quinta. Admisión de los aspirantes.*

Finalizado el plazo de presentación de instancias, el Presidente de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena aprobará la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos, así como la designación de los miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador, que se harán públicas en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web y serán expuestas en el tablón de anuncios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, concediéndose un plazo de diez (10) días hábiles, a los efectos de reclamaciones o subsanación de errores, a tenor del artículo 71 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre LRJPAC.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiera, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva y que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

Contra dicha resolución, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la lista de admitidos y excluidos en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de lo que se pueda interponer cualquier otro Recurso que se estime procedente. Con carácter previo y potestativo se podrá interponer en el plazo de un mes, Recurso de Reposición.

*Sexta. Tribunal Calificador.*

El Tribunal Calificador de las pruebas estará compuesto por miembros titulares y suplentes cuya designación será publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web, quedando constituido de la siguiente manera:

Presidentea.

— Mankomunitateko idazkaria / Mankomunitateko ordezko funtzionarioa.

Kideak.

— BADESAko zuzendaria.

— Lan-osasuneko teknikaria.

— Bete beharreko lanpostuaren kategoria berdineko edo handiagoko batzordeko kidea.

— Eremuko bide-garbiketako arduraduna.

Idazkaria.

— Mankomunitateko funtzionarioa.

Bidezkotzat hartzen den probetan, dagokion arloko aholkulari adituen laguntza eskatu ahal izango du Epaimahaiak.

Epaimahaikideek ez dute jarduterik izango Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat agertzen denean, eta presidenteari jakinarazi beharko diote. Halaber, errekusatu ahal izango dira, Lege beraren 29. artikuluari jarraiki.

Epaimahaiaren jardun-prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat etorriko da beti.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik (horrek ez du botorik izango). Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun presidentea, idazkaria eta, gutxienez, kide titular zein ordezkoen erdiak ez badaude.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoarekin hartuko dira, eta, berdinketarik izanez gero, presidentearen botoak erabakiko du (titularra eta ordezkoa falta badira, kiderik zaharrenak jardungo du presidente-lanetan).

Arau hauek aplikatzean sortzen den zalantza oro Epaimahaiak argituko du, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

Epaimahaiak lanetan aholkulari espezialistak txertatzea xedatu ahal izango du, hautaketa-sistemako proba guztiak edo batzuk egiteko. Edonola ere, beren espezialitatearen inguruko aholkularitza eta lankidetza teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek.

*Zazpigarrena. Hautatzeko prozedura. Oposizio-fasea: 80 puntu.*

Ariketetarako deialdia Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen webgunean argitaratuko da, eguna, ordua eta lekua adierazita.

Epaimahai Kalifikatzaileak behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izan izango die izangaiei noiznahi. Edonola ere, izangaiek NANarekin edo epaimahaiaren ustez izangaiaren identitatea behar bezala egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizialekin (pasaportearekin edo gidabaimenarekin, adibidez) joan beharko dute oposizioko ariketa bakoitza egitera.

Oro har, hiru egun baliodunEko epea ezarriko da (epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita) egindako azterketen berrikuspena eskatzeko edo azterketen kalifikazioen inguruko erreklamazioak aurkezteko.

Presidente.

— Secretaria de la Mancomunidad / suplente funcionario de la Mancomunidad.

Vocales.

— Director de BADESA.

— Técnico de Salud Laboral.

— Miembro del comité de igual o superior categoría que el puesto objeto de provisión.

— Encargado de Limpieza Viaria de la zona.

Secretario.

— Funcionario de la Mancomunidad.

En las pruebas en que lo consideren conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores expertos en las materias de que se trate.

Los miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al Sr. Presidente, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el Art. 28 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Asimismo, podrán ser objeto de recusación, conforme al Art. 29 de la misma Ley.

El procedimiento de actuación del Tribunal se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, con excepción del Secretario del mismo, que carecerá de esta última facultad. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia del Presidente y del Secretario y la mitad, al menos, de sus miembros titulares o suplentes indistintamente.

Las decisiones del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos de los presentes, resolviendo, en caso de empate, el de quien actúe como Presidente, que lo serán, en caso de ausencia del su titular o de su suplente, el vocal de mayor edad.

El Tribunal resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas normas, así como lo que deba hacerse en los casos no previstos.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos, de asesores especialistas, para todas y algunas de las pruebas de las que conste el sistema selectivo, que se limitarán a prestar su asesoramiento y colaboración técnica en el ejercicio de sus especialidades.

*Séptima. Procedimiento de selección. Fase de Oposición: 80 puntos.*

La convocatoria de los ejercicios se publicará en la página web de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, indicando fecha, hora y lugar de celebración.

El Tribunal calificador podr en todo momento requerir a las personas aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrn de concurrir a la realización de cada ejercicio de la oposición provistos/as del DNI o cualquier otro documento oficial, que a juicio del tribunal resulte suficientemente acreditativo de la identidad de la persona aspirante (pasaporte, permiso de conducir).

Como norma general, se establecer un plazo de tres días hbiles, contados desde la fecha de publicación de la resolución del tribunal, para solicitar la revisión de exmenes realizados o para presentar reclamaciones sobre calificaciones de los mismos.

Idatzizko ariketak egitean, izangaien anonimatua ahal den guztietan bermatzeko bidezko neurriak hartuko ditu Epaimahaiak.

— Lehen ariketa. Teorikoa: Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gai multzoarekin zerikusia duten eta erantzun alternatiboak dituzten galderen sorta bati erantzun beharko zaio idatziz. Ariketa horretan, 0 puntutik 25era bitarte emango dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Kale-garbiketako zerbitzuko peoi espezialistako lanpostua hautatzeko prozesurako ariketa teorikoa hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuko peoi espezialistako lanposturako ariketa teorikoaren berdina izango da.

— Bigarren ariketa. Praktikoa: Nahitaezkoa eta baztertzailea. Langileak bete beharreko funtzioei lotuta Epaimahaiak planteatutako hainbat proba egin beharko dira. Ariketa horretan, 0 puntutik 40ra bitarte emango dira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko. Epaimahaiari dagokio proba bakoitzean gutxienez lortu beharreko puntuazioa finkatzea.

— Hirugarren ariketa. Nahitaezkoa. Epaimahaiak elkarrizketa pertsonala egingo die aurreko ariketen kalifikazioaren arabera proba baztertzaileak gainditu dituzten izangaiei, lanposturako gaitasun-alderdi batzuk ebaluatzeko.

Ariketa horretan, 0 puntutik 15era bitarte emango dira.

*Zortzigarrena. Oposizioaren garapena.*

Kalifikazio Epaimahaiak proben ordena 7. oinarrian aurreikusitakoa ez izatea eta zenbait proba egun berean egitea erabaki ahal izango du. Kasu horretan, epaimahaiak aurreko proba gainditu duten izangaiei baino ez dizkie probak ebaluatuko.

Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Horrela, beraz, Epaimahaiak deituta adierazitako lekuan, egunean eta orduan ariketak egitera agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiak daudenean ere– hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira behin betiko.

Ariketa baztertzaile bakoitza amaitzean, eta Epaimahaiaren erabaki bidez, ariketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko da webgunean.

*Bederatzigarrena. Lehiaketa-faseko merituak: 20 puntu.*

Deialdi bakoitzean oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasean sartuko dira. Fase horretan, Epaimahaiak honako meritu hauek balioetsiko ditu, betiere eskabidean alegatu badira (4. Oinarriaren b) idatz-zatiari jarraiki) eta behar bezala egiaztatu badira.

1. Euskara-maila:

1. HEarekin pareka daitekeen euskara-maila egiaztatua: 10 puntu.

2. Lan-esperientzia. 7 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Lortu nahi denaren antzeko lanpostuetan egindako zerbitzuak: 0,25 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta 7 puntu gehienez.

3. B gidabaimenena. 3 puntu.

Hamargarrena. Oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioa.

Oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioa bi faseetan lortutako kalifikazioen batura izango da, hurrengo puntuan adierazitako aurreikuspenei jarraiki.

Oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioak izangaien lehentasun-ordena ezarriko du.

En la realización de los ejercicios escritos el Tribunal adoptar las medidas oportunas para garantizar, siempre que sea posible, el anonimato de los y las aspirantes.

— Primer ejercicio. Teórico: Obligatorio y eliminatorio. Consistirá en responder por escrito a un cuestionario de preguntas con respuestas alternativas relacionados con el temario. Este ejercicio se valorará de 0 a 25 puntos, siendo obligatorio obtener un mínimo de 10 para la superación del mismo.

El ejercicio teórico para el proceso de selección del puesto de Peón Especialista del servicio de limpieza viaria será el mismo que el ejercicio teórico para el puesto de Peón Especialista del servicio de recogida de residuos urbanos.

— Segundo ejercicio. Práctico: Obligatorio y eliminatorio. Consistirá en ejecutar varias pruebas planteadas por el Tribunal, relacionadas con las funciones a desarrollar. Se valorará entre 0 y 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20, en el conjunto, para superar el mismo. Queda a criterio del Tribunal, el determinar el mínimo a obtener en cada una de las pruebas.

— Tercer ejercicio. Obligatorio. Entrevista personal del Tribunal con l@s aspirantes que hayan superado las pruebas eliminatorias, según calificación de los anteriores ejercicios con el fin de evaluar aspectos de aptitud para el puesto.

Se valorará entre 0 a 15.

*Octava. Desarrollo de la Oposición.*

El Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas en orden diferente al previsto en la Base 7.ª, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. En este caso, sólo entrará a evaluar cada prueba, respecto de los que hayan superado la anterior.

La convocatoria de cada prueba se realiza en llamamiento único, así los aspirantes que no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de los ejercicios en el lugar, fecha y hora que se señale, incluso por razones de fuerza mayor, serán definitivamente excluidos del procedimiento selectivo.

Al finalizar cada ejercicio de carácter eliminatorio, mediante acuerdo del Tribunal, se publicará en la página web la lista de aspirantes que lo hubieran superado.

*Novena. Méritos de la fase de Concurso: 20 puntos.*

Los aspirantes que superen la fase de oposición en cada convocatoria, accederán a la fase de concurso, en la cual, el Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados en la Instancia, de acuerdo con el apartado b) de la Base 4.ª y acreditados suficientemente.

1. Conocimientos de euskera:

Conocimientos de euskera acreditados asimilables al PL1: 10 puntos.

2. Experiencia laboral. Se valorará con un máximo de 7 puntos.

Servicios prestados en puestos similares al que se opta, 0.25 puntos por mes trabajado, hasta un máximo de 7 puntos.

3. Carnet de conducir B: 3 puntos.

Décima. Calificación final del Concurso-Oposición.

La calificación final del Concurso-Oposición, será la suma de las obtenidas en sus dos fases, conforme a las previsiones que se señalan en el punto siguiente.

La calificación final del Concurso-Oposición determinará el orden de prelación de los aspirantes.

Hautaketa-prozedura osatzen duten proben eta merituen balioespena amaitu ondoren, izangaien sailkapen-ordena onartuko du Epaimahai Kalifikatzaileak, puntuaziorik handienetik txikienera eta oposizioan eta lehiaketan lortutako puntuazioen baturaren ondoriozkoa.

Puntuazioan berdinketarik izanez gero, honako irizpide hauen arabera jokatuko da, ezarri diren lehentasun-ordenan:

a) Proba praktikoan puntuaziorik handiena lortu duena.

b) Ezagutza teorikoen proban puntuaziorik handiena lortu duena.

Hautaketa-prozedura osatzen duten proben eta merituen kalifikazioa amaitu ondoren, hautatutako izangaien zerrenda onartuko du Epaimahai Kalifikatzaileak. Hain zuzen ere, hautaketa-prozesua gainditu duten eta bete beharreko plazen kopuruan sartzen diren izangaiek osatuko dute zerrenda. Hautaketa-prozesua gainditzen duten gainerako izangaiak prozesu honen bidez eratutako lan-poltsan sartuko dira.

Eratutako lan-poltsak urtebeteko iraupena izango du gehienez.

Epaimahai Kalifikatzaileak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen webgunean argitaratuko ditu adierazitako zerrendak, eta, hautatutako izangaia izendatzeko proposamenarekin batera, presidenteari aurkeztuko dizkio.

Lanpostua betetzeko proposatutako eta onartutako izangaiak, nolanahi ere, oposizio-lehiaketan parte hartzeko deialdi honen oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu hamar (10) egun balioduneko epean, probak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Adierazitako epearen barruan (eta ezinbesteko arrazoien kasuan izan ezik) onartutako eta proposatutako izangaiak eskatutako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, hasierako eskaera faltsutzearen ondoriozko erantzukizuna aparte utzi gabe. Kasu horretan, ariketa baztertzaileak gainditu dituen eta azken puntuazio-ordenan hurrengo lekuan dagoen izangaia kontratatzeko proposamena egingo du organo eskudunak.

*Hamaikagarrena. Probaldia.*

Organo eskudunak baimendu egingo du Epaimahaiak proposatutako izangaiaren kontratazioa, eta hark kontratua sinatu beharko du ezarritako epean, kontratazioa baimentzen duen Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzar Orokorraren erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratatutako izangaiak probaldi bat gainditu beharko du. Probaldiak 2 hilabeteko iraupena izango du gehienez, eta Langileen Estatutuaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko dio.

Dagokion arduradunak langileari buruzko txosten bat egingo du, eta honako gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: Lan egiteko gaitasuna eta lanbide-errendimendua, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lan egiteko prestasuna eta ekimena, eta, azkenik, lanarekiko interesa. Halaber, lan-taldera moldatzeko gaitasuna hartuko da kontuan.

Izangaiak probaldia gainditzen ez badu, plazari uko egiten badio edota lanpostuaren eskakizunen bat betetzen ez badu, kontratuan atzera egin duela ulertuko da, eta hautaketa-prozesuaren puntuazio-ordenan hurrengoa den izangaiari esleituko zaio lanpostua.

Concluida la valoración de las pruebas y méritos que integran el procedimiento selectivo, el Tribunal Calificador aprobará el orden de clasificación de los aspirantes conformado de mayor a menor puntuación, resultante de la suma de las puntuaciones alcanzadas en la oposición y el concurso.

Los empates en la puntuación se resolverán atendiendo a los siguientes criterios, por el orden de prioridad en que se establecen:

a) Mayor puntuación en la prueba práctica.

b) Mayor puntuación en la prueba de conocimientos teóricos.

Concluida la calificación de las pruebas y los méritos que integran el procedimiento selectivo, el Tribunal aprobará la relación de aspirantes seleccionados, integrada por quienes, habiendo superado el proceso selectivo, tuvieran cabida en el número de plazas convocadas. El resto de aspirantes que superen el proceso selectivo integrarán la bolsa de trabajo que, a través de este proceso, se constituye.

La duración de la bolsa de empleo que se constituya, tendrá como máximo un año de duración.

El Tribunal Calificador publicará en la página web de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, relaciones indicadas y las elevará a la Presidencia junto con la propuesta de nombramiento a favor del seleccionado.

El aspirante aprobado, propuesto para el puesto de trabajo, presentará, en el plazo de diez (10) días hábiles a contar desde el día siguiente a aquél en que se hiciera pública la relación de aspirantes que han superado las pruebas, los documentos acreditativos del cumplimiento de las condiciones que, para tomar parte en el Concurso-Oposición, se exigen en las bases de esta convocatoria.

Si dentro del plazo señalado, y salvo causas de fuerza mayor, el aspirante aprobado y propuesto no acreditase reunir los requisitos exigidos, no podrá ser nombrado, quedando anuladas todas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubiera podido incurrir por falsedad en la solicitud inicial. En tal caso, el órgano competente formulará propuesta de contratación a favor de quien, habiendo superado los ejercicios eliminatorios, ocupe el siguiente lugar en el orden de puntuación final.

*Decimoprimera. Período de prueba.*

El órgano competente autorizará la contratación del aspirante propuesto por el tribunal, quien deberá firmar el contrato en el plazo que se establezca, a contar desde el siguiente a la fecha de notificación del acuerdo de la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que autorice la contratación.

El aspirante contratado tendrá que superar un período de prueba de una duración máxima de 2 meses, que se ajustará a lo establecido en el artículo 14 del Estatuto de los Trabajadores.

El responsable correspondiente emitirá un informe sobre el trabajador y en el mismo tomará en cuenta las siguientes aptitudes: Capacidad para trabajar y rendimiento profesional, sentido de la responsabilidad y de la efectividad, disposición e iniciativa para trabajar y, por último, interés hacia el trabajo. También se tendrá en cuenta la capacidad para amoldarse al grupo de trabajo.

La no superación del período de prueba, la renuncia o el incumplimiento de alguno de los requisitos del puesto, supondrá el desistimiento en el contrato del aspirante y determinará la adjudicación del puesto al siguiente candidato por orden de puntuación en el proceso selectivo.

*Hamabigarrena. Gorabeherak.*

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko orotan, sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren garapen egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du Epaimahaiak.

*Hamahirugarrena. Datu pertsonalen babesa.*

Izangaiek hautaketa-prozesuan emandako datu pertsonalei honako arau hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie: 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duena; 994/1999 Errege Dekretua, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko Erregelamendua onartzen duena; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonalak dituzten eta titulartasun publikokoak diren fitxategiei eta Datuak Babeseko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa; eta horiek garatzeko gainerako araudiak.

«Langileen hautaketa» izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan txertatuko dira hautaketa-prozesuan emandako datu pertsonalak. Hautaketa-prozesuetako izangaien lanbide-jarrera ebaluatzea da fitxategi horren xeda. Datuen hartzailea Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea izango da. Fitxategiaren arduraduna Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea da, eta sartzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezeztatzeko eskubideak Mankomunitatearen aurrean baliatuko dira.

Hautaketa-prozesua kudeatzeko eman dituzten datu pertsonalak tratatzeko baimena eman beharko dute izangaiek (datu horiek Interneten argitaratzeko aukera barne).

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio edo erakunde batzuei laga ahal izango zaizkie, haien unean uneko langile-premiei erantzuteko.

Hautaketa-prozesuan emandako datuen tratamenduan, segurtasun-neurriei buruzko Erregelamenduan ezarritako segurtasun-neurriak beteko dira.

*Hamalaugarrena. Aurkaratzeak.*

Interesdunek deialdi honen, haren oinarrien eta horien guztien nahiz Epaimahaiaren jardunaren ondoriozko administrazio-egintzen aurka egin ahal izango dute, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

GAI-ZERRENDA

1. gaia. Udal-antolaketa. Udalak eta mankomunitateak. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea.

2. gaia. Debabarrena eskualdea. Eskualdea osatzen duten udalak.

3. gaia. Tokiko zerbitzu publikoak: Oinarrizko elemetuak eta ezaguerak. Tresna-motak eta tresna horien erabilera. Materialak.

4. gaia. Hiri-garbiketa: Oinarrizko elemetuak eta ezaguerak. Tresna-motak eta tresna horien erabilera.

5. gaia. Estoldak: Oinarrizko elemetuak eta ezaguerak.

6. gaia. Hiri-hondakinen bilketa: Oinarrizko elemetuak eta ezaguerak.

7. gaia. Kale-garbiketa. Kale-garbiketaren oinarrizko alderdiak. Makinak eta tresnak erabiltzen jakitea: Erratzak, erratz mekanikoa, gurdiak eta abar.

8. gaia. Lan arriskuen prebentzio araudia.

9. gaia. Langileen eskubide-betebeharrak.

*Decimosegunda. Incidencias.*

El Tribunal quedará facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden y perfecto desarrollo del Concurso-Oposición, en todo lo no previsto en estas Bases.

*Decimotercera. Protección de datos personales.*

A los datos de carácter personal aportados por los candidatos durante el proceso de selección, les será aplicado lo establecido en el Real Decreto 1720/2007 de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Real Decreto 994/1999, por el que se aprueba el Reglamento de medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contengan datos de carácter personal, la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, así como el resto de la normativa de desarrollo.

Los datos personales aportados durante el proceso de selección formarán parte del fichero automatizado de datos personales denominado «Selección de Personal», cuyo objeto es la evaluación de la actitud profesional en los procesos electivos. El destinatario de los datos será la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. El responsable de este fichero es la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y los derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación se ejercerán ante ella.

Los candidatos deberán dar el consentimiento al tratamiento de los datos personales aportados para gestionar este proceso selectivo, incluida la publicación de dichos datos en Internet.

Los datos aportados durante el proceso selectivo pueden ser objeto de cesión a otras administraciones o entidades, al objeto de atender sus necesidades puntuales de personal.

En el tratamiento de los datos aportados durante el proceso selectivo, se observarán las medidas de seguridad establecidas en el Reglamento de medidas de seguridad.

*Decimocuarta. Impugnaciones.*

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de la misma y de las actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por los interesados en los casos y formas establecidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

TEMARIO

Tema 1. Organización municipal Ayuntamientos y Mancomunidades. La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

Tema 2. La Comarca de Debabarrena. Ayuntamientos que la integran.

Tema 3. Elementos y conocimientos básicos de servicios públicos locales. Tipos de herramientas y su utilización. Materiales.

Tema 4. Elementos y conocimientos básicos de limpieza urbana. Tipos de herramientas y su utilización.

Tema 5. Elementos y conocimientos básicos de alcantarillado.

Tema 6. Elementos y conocimientos básicos de la recogida de residuos urbanos.

Tema 7. Limpieza viaria. Aspectos básicos de las tareas de limpieza viaria. Manejo de maquinaria y utensilios: Escobas, barredora mecánica, carros, etc.

Tema 8. Normativa de prevención de riesgos laborales.

Tema 9. Derechos y deberes de los trabajadores.

## DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUKO PEOI ESPEZIALISTAKO PLAZA 1 TXANDA KONTRATUAREN MODALITATEPEAN BETETZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETAREN OINARRIAK

*Lehenengoa. Deialdiaren xedea.*

Oinarri hauen xedea honako hau da: Hiri-honakinak biltzeko zerbitzuko peoi espezialistako plaza 1 txanda-kontratuaren modalitatepean betetzeko deialdia oposizio-lehiaketa askearen sistemaren bidez arautzea.

Lanaldia Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak urtean ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak kontuan hartuta.

Txanda-kontratua enplegu-bulegoan langabe gisa inskribatuta dagoen edo enpresarekin iraupen jakin bateko kontratu bat itunduta duen langile batekin itunduko da, erretiro partziala hartuko duen enpresako langilea ordezteko. Azken horrekin ituntzen den lanaldi partzialeko kontratuaren aldi berean egingo da. Kontratuaren iraupena ordeztutako langilea falta izango den aldiaren berdina izango da.

Txanda-kontratua partziala izango da, eta lanaldia %75aren baliokidea izango da. Hortaz, bat dator txanda-kontratuaren bidez ordeztutako langilearekin adosten den lanaldi-murrizketarekin (ordeztutako langileak 2018ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo den Erretiro Partzialeko Plana ezartzeko akordio kolektiboari atxiki zitzaion).

Plaza lortzen ez dutenen, baina oposizio-fasea gainditzen duten izangaien zerrenda antzeko lanpostuetan langile ez-iraunkorren premiei erantzuteko erabili ahal izango da.

Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriak honako hauek dira:

— *Kod.:* 0217.

*Lanpostua:* H.H.ko Langile espezialista.

*Taldea:* E.

*HE:* 1.

*Derrigortasun data:*

*Bigarrena. Plazaren funtzioak.*

Funtzioen Eskuliburuko zereginen deskribapenean agertzen direnak eta lanpostu horri dagokionez Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak esleitzen dizkionak izango dira.

*Hirugarrena. Izangaien baldintzak.*

Hautaketa-probetan onartua izateko eta parte hartzeko, betebehar hauek ezinbestekoak izango dira:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea. Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatugabearen ondorengoak ere, hogeita bat (21) urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien mendekoak badira.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean 18 urte beteta izatea, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

## BASES DEL CONCURSO-OPOSICIÓN PARA LA PROVISIÓN DE 1 PLAZA DE PEÓN ESPECIALISTA DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS, BAJO LA MODALIDAD DE CONTRATO DE RELEVO, DE LA MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de estas bases, regular la convocatoria por el sistema de concurso-oposición libre, para la dotación y provisión de 1 plaza de Peón Especialista del servicio de recogida de residuos urbanos, de carácter laboral, bajo la modalidad de contrato de relevo.

La jornada de trabajo será la que se establezca anualmente por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

El contrato de relevo se concierta con un trabajador inscrito como desempleado en la oficina de empleo, o que tuviese concertado con la empresa, un contrato de duración determinada, para sustituir al trabajador de la empresa que accede a la jubilación parcial. Se celebrará simultáneamente con el contrato a tiempo parcial que se pacte con este último. La duración del contrato será igual a la del tiempo que falte el trabajador sustituido.

